


● EHU

Ingeniaritza Eskolan prototipoak egin dituzte eta martxoaren amaieran eskolan bertan egingo diren bozketa batzuetan egin dezaketa esperimentuak proba

Iñigo Olabarri • Bilbo

Eusko Jaurtaritzan badago ahalegin berezi bat hauteskundeetan berrikuntza teknologikoekin gauzak errazteko eta hobetzeko. Hori dio Iñaki Goizelaiak, EHUko Ingeniaritza Eskolako irakasleak. Ingeniarien Eskolako Telematika sailean hurrengo hauteskundeetarako proiektu bat egiten ari ziren. Proiektu horren bitartez, hautestontzietara sartzen diren botoak modu automatikoan zenbatuko dira. Hurrengo hauteskundeetan abian jartzekotan ziren proiektua, baina FAFko Gobernuaren egoera zein den ikusita eta hauteskundeak aurreratuko direla kontuan izanda, ez dute modurik izango ordurako abian jartzeko. Botoak zenbatzeko sistema berria ezartzeko legea ere aldatu behar dela jakinarazi dute Ingeniarien Eskolatik; horretarako ere ez da unerik egokiena.

Sistema soila da prestatu dutena. Egun botoa emateko dagoen moduarekin bateragarria da, eta Estatu Batuetako hauteskundeetan izan ziren istiluen aurretik abian jarritako proiektuaren emaitza dela gaineratu du Iñaki Goizelaiak. Ohiko hautestontziaren gainean jarriko dute boto zenbatzaile berrina. Horretarako boto bereziak prestatu beharko dira. Boto horietan alderdi politikoaren izenaz eta hautagaien izenez gain, beheko aldean, estalita, kodea azalduko da. Kode hori irakurtzeko izpi ultramozurrak igortzen dituen gailu bat dauka hautestontziak. Ezkutuan dagoen hori irakurri eta zenbatu egingo du. Aldi berean, hartu duten paperean agertzen den hautagaitza eta ezkutuko kodea bat datozela ikusi ahal izateko,



Hautestontziaren gainera, zirkuituak boto paperean sartuta zenbatuko dituzten botoak

Boto elektronikoarentzako hautestontzia bidean da

izpi ultramozurrak gailuak bozkalkuetan eta kalean ere jarriko dituzte hauteskunde egunean.

Behin bozkalekuak itxi eta gero, hautestontziaren memorian gordeta dauden datuak zerbitzari batera bidaliko dituzte. Zerbitzariak datuak jaso dituela baieztatzeko seinale bat bidaliko du hautestontzira, eta horrenbestez amaituko da zenbakera. Horiek behin-behineko emaitzak izango dira, hala ere. Izan ere, balio duten datuak ak-

tetan jasotakoak dira, eta normalean hautestontzi berrak zenbatutakoarekin gustura ez balego, hautestontzietan dauden botoak eskuz zenbatu beharko lirateke.

Hautestontzien gainean ezarritako gailuari esker, behin-behineko datuak jakiteko behar den epea izugarri laburtuko litzateke. Normalean bozkalekuak itxi eta handik lau edo bost ordura jakiten dira emaitzak. Gailu horri esker, bost minutu baino ez dira beharko batuketa guztiak egiteko. Hala ere, behin betiko datuak akte eskaintzen dituztenak izaten jarraituko dutela gogorazi zuen Iñaki Goizelaiak.

Ohikoa eta berritzailea batera

Sistemaren arrakasta bermatzen duena ohiko botatzeko modua eta botoak zenbatzeko modu automatikoa batean biltzea da. Iñaki Goizelaiaren irudiko, Paperik eta hautestontzirik ba-

ko hauteskunderik jendeak ez lukeela onartuko uste du Goizelaiak. Transmisioan arazonik balego, bestalde, telefonoz eman beharko lirateke datuak.

Enpresek ere bultzatu dute proiektua. Ikusi, Hunolt, Ibermatika eta Euskaltelek ere, bakoitzak bere arloan, lagundu dute proiektua aurrera ateratzen. Eusko Jaurtaritza, Robotiker eta Ikerlan ere aritu dira hautestontzi berrien garapenean, baita Ingeniarien Eskolako Ingeniaritza Telematikoko saila ere.

Enpresa eta eikarte bakoitzak bere arloan egin du lan. Ikusirik osagai elektronikoak egin ditu, txartelak; Ibermatikak zerbitzu telematikoa eta informatikoa, arri ditu eskuragarri; Hunoltek tintaren arloan parte hartu du —izpi ultramozurrak bitartez irakurri ahal izateko tinta bereziak behar dira—; eta Euskaltelek komunikazioaren arloan landu behar du proiektuan.

Segurtasunaren auzia

Teknologia berriak sartzen diren orduan segurtasun mailaren kezka beti izan ohi da agerikoa. Arriku honi badago, baina ez da gaur egun dagoen arriskua baino handiagoa. Izpi ultramozurrak baino ikusi ez daitezkeen atal hori manipulatzeko dagoen aukera agerikoa da, baina ez da erraza. Botoa eskuan izango du bakoitzak eta bozkalkuetan ikusi ezin daitezkeen eremu horietan zer dagoen ikustea ahalbidetuko du. Norbaitek ateratzen zake paper kopuru bat hautagai

● **Bozkalekuak itxi eta bost minutura hautestontzi bakoitzean dauden botoen emaitzak jakin ahalko dira**

● **Egungo teknologia ikusita egin daitezkeen sistemarik seguruenak dela diote eskolan**



zerrenda jakin batekin eta gero estalita dagnen toki horretan beste alderdi baten izena jarri. Hori botoa eman baino lehen begiratuta kontontzeko aukera dago, besterik gabe. Gaur egun dauden baliabide teknologikoak kontuan izanda eta haiek eskaintzen dituzten segurtasun neurriak aztertu eta gero, egin daitekeen sistemarik seguruenetakoa da egiten ari direna. Ingeniaritza Eskolan adierazitakoaren arabera.

Hasierako prototipoak egin dituztela dio Inaki Goirizelaia, baina benerako proba noiz egingo duten jakiterik ez dagoela dio. Hala ere, sistema berraren arrakastatsua den ala ez jakiteko lehenengo aukera bat Ingeniaritza Eskolan bertan izango da. Han martxoaren amaieran izango den Batzar Iraunkorreko bozketa batean erabiliko dute.

Hauteskunde batzuetan sistema berriaren aurrerapausoak noiz ikusi ahalko diren esatera, ordea, ez da auzartzen Ingeniaritza Eskolako irakaslea. Hauteskunde prozesuek ekarri ohi dituzten kostuak merkatzeko ere balioko du sistema berriak.

Paperekin kostuak igo egingo luke, batez ere, erabiltzen diren tintak bereziak direlako. Hala ere, ez litzateke gutun azalik behar harko botoa ezkutuko izan da.

ko

Informazio gehiago
www.demotek.net



• **Boto papera:** Hautagai zerrenda dago goiko aldean. Behean alderdiaren izena izango da, baina izpi ultraromez ikusi ahalko da.



• **Pribatutasuna:** Kartazalik ez da izango, eta tolestu egin behar da dira pribatutasuna ahalbidetzeko. Izpiekin ikustekoa geratuko da bistan.



• **Baliotzea:** Botoa hautestontzira sartu aurretik izpidun irakurle batetik sartu behar da. Irakurleak zenbatuko ditu botoak.



• **Hautestontzira:** Irakurleak botoa zenbatu eta gero, beste zirkuitu batetik boto zenbatzailearen azpian dagoen hautestontzira sartuko du.

• **Botoen zenbaketa:** Bozkaletuak itxi eta gero mahaiko lehendakariak txartel bat sartuko du hautestontziak jakin dezan bozketa amaitu dela. Gero, datuak zerbitzari batera bidaliko dituzte.

